

YERBA

ZER DA?

Programa honen ardatza da ondoko bi behar hauei erantzutea; batetik, gazteek kanabisaren deribatuak kontsumitzearen kezka eta bestetik, nabigatzaile helduei abisu eman nahi izateari, hau da gurasoei, euren paperak aztertu eta berrikusteko, edota ez galtzeko eta ekaitza sortarazteko, edota ez ahazteko ezta abandonatzeko ere portu on batera iritsi ezinik dabiltzalarik.

NORTZUENTZAT?

Oro har, Portugaleteko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako 2. eta 4. mailetako ikasleentzat, Ikasgela Osagarrikoentzat eta Portugalete Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuko ikasleentzat.

Zehatz-mehatz porru bati inoiz muzinik egiten ez diotenentzat, hurrengo zurrupadaren zain irrikatsu daudenentzat, txustei ezetzik esaten ez diotenentzat, noiznahi kosto edo paperaren kalitateaz hitz egiteko prest daudenentzat edo Maria entzunda edozeri porruaren usaina hartzen diotenentzat.

Lotaratu eta bazkaldu aurretik eta ondoren ere erretzen dutenentzat, eskolaren aurretik eta ondoren ere erretzen

dutenentzat, txakurra atera aurretik eta ondoren ere egiten dutenentzat, alegia, eguneroko zeregin askoren aurrean zein atzean kontsumitzen dutenentzat. Izan ere, ohikoa dela esango dute beti.

ZERTARAKO?

- Film laburra eta spot batzuk ikusi ondoren gazteak nahiz helduak ispiluaren bestaldean kokatzeko. Hartara, urrutitik euren burua ikusita, hobeto aztertuko dituzte haiengandik hurbil dauden jokabideak.
- Egitasmoa osatzen duten irudiak gazteek eta gurasoek ikusi bitartean, emozioak haiengan sorrarazteko.
- Gazteek berek bizi dituzten egoera askotarikoak antzematen laguntzeko. Ondoren, proposatutako gaien gaineko azterketa eta gogoeta egiten da.
- Kanabisaren kontsumoari buruzko eztabaida hala gazteei nola helduei aurkezteko, gune eta ikuspegiak elkarren aurkakoak direlarik.
- Bai gazteek bai helduek pentsamendu kritikoa edukitzera bultzatzeko, egitasmoko irudien kontrakotasuna eta ziurgabetasuna abiapuntuak izanik.

NOIZ?

Martxoan edo apirilean, bi orduko iraupena duen lantegi batean.

NOLA?

Programa ikastetxean bertan egiten da, ikasgeletan eta lantegi dinamiko eta praktiko batean.

Bi bitartekari gaztek gidatzen dituzte saioak.

NON?

Portugalete Oinarrizko Lanbide-heziketako Udal Institutuko ikasgeletan, Ikasgela Osagarrian eta Portugaleteko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako 2. eta 4. mailetakoko ikasgeletan.

Ikastetxeek berek egin behar dute eskaria.